BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO GONBIDATUENTZAKO OSTATUA KONTRATATZEKO ESPARRU-AKORDIOARENA
(5 izarreko hotelak)

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Esparru-akordio honen xedea honako hau da: Sozietateak Donostia Zinemaldira gonbidatu dituen pertsonentzako ostatua kontratatzeko baldintzak zehaztea, 4 izarreko hoteletan, eta kontratatzeko prozedurak ezartzea, akordio honetan oinarritutako kontratuen bidez.

Esparru-akordioaren esleipendunak izango dira goian aipatutako zerbitzuen hornitzaile. Esleipendunen kopurua hotel bakoitzak eskaintzen dituen kupoen eta Zinemaldiaren beharren araberakoa izango da. Zinemaldiak ez du ostatuen kopuru zehatza eskatu beharrik izango; izan ere, beharren aldaketak egon daitezke. Hortaz, lizitatzaileek ezin izango dute kopuru zehatzik eskatu.

Kontratuak irailean formalizatuko dira, ostatu-beharren arabera.

2.- KOKAPENA

Hotelak Donostian egongo dira, Kursaal Elkargunetik gehienez ere 3,5 kilometrora.

3.- FAKTURAZIO-BALDINTZAK

Zinemaldia amaitu eta 10 eguneko epean, esleipendunek Excel dokumentu bat prestatu beharko dute, eta, bertan, honako informazio hau jaso:

- Gonbidatuaren izen-abizenak.
- Logela mota.
- Ostatu-gauen kopurua.
- Sarrera- eta irteera-datak.
- Eguneko zenbatekoa eta zenbateko osoa, BEZik gabe.

Oharra: Hotelera iristean, ostatu hartzeko erreserbatu den gonbidatuak bere nortasuna egiaztatu beharko du NANa edo agiri baliokidea aurkeztuta, eta gonbidatu horren izena agertu beharko da fakturan eta Excelean, eta inola ere ez laguntzailearena, halakorik balego. Baldintza hori betetzen ez duten fakturak ez dira ordainduko.

Zinemaldiak, zerrenda hori berrikusi ondoren, zenbait gonbidaturen ziurtagiriak eskatu ahalko dizkie esleipendunei, beharrezko iruditzen zaionean. Ziurtagiriak proiektuka edo sailak bereizita egongo dira, eta egonaldiaren egun kopurua adieraziko dute.

Fakturak dagokien BEZarekin aurkeztuko dira eta zerga araudian ezarritako gainerako eskakizunak beteko dira.